

ANTROPOLOGIA SINBOLIKOA (Apuntiak)

SINBOLOAK ZERTARAKO

- Lévi Strauss “Eraginkortasun sinbolikoa”
- Mary Douglas “Magia y milagro”

KATEGORIAK, SAILKAPENAK ETA ORDENU SINBOLIKOA

- Edmund Leach “La lógica del sacrificio”
- Robert Hertz “La muerte y la mano derecha”
- Mary Douglas “Las abominaciones del levítico”
- Stanley Tambiah “Animals are good to think and good to prohibit”

IGAROBIDE ERRITOAK

- Arnold Van Gennep “Igarobide errituak”
- Victor Turner “Liminalidad y communitas”
- Pierre Bourdieu “Ritos de institución”

SINBOLO ETA ERRITUALA GIZARTE ANTOLAKETAREN IKERKETAN

- Gregory Bateson “Contraste etológico, competición y cismogénesis”
- Victor Turner “Símbolos en el ritual Ndembu”
- Clifford Geertz “Juego profundo: notas sobre la riña de gallos en Bali”

SISTEMA SINBOLIKOEN IRAKURKETA ZEINBAIT: SORGINKERIA ABIAPUNTUA

- Evans Pritchard “Los hombres embrujan a los demás cuando los odian”
- Max Gluckman “La lógica de la ciencia y de la brujería africana”
- Jeanne Favret-Saada “The less one talks, the less one is caught”

HIZKUNTZA ETA METAFORA

- Clifford Geertz “Deskribapen trinkoa: kulturaren teoria interpretatibo bateruntz”

SINBOLOAK ETA ERRITUALAK POLITIKA ALORREAN

- David Kertzer “Rituals, politics and power”
- Begoña Aretxaga “Los funerales en el nacionalismo radical vasco”

ERAGINKORTASUN SINBOLIKOA
-Levi Strauss, Claude-
“Antropologia estrukturala” 1996

LEVI STRAUSS (1908-2009)

- Antropoloa estrukturalaren aita
- Landa lan bakarra egin zuen, gainontzeko denak beste egile batzuen testuen gaineko hausnarketak.

Panamako KUNA YALA tribua_ mitoa + sendabiderako kantua

- Henry Wassen eta Nils M. Holmer-en lana, Panamako Cuna tribuari buruzkoa.
 - Mu-igala edo Muu-ren bidea: sendabierako kantua (bertako Shamanek erabilia)
 - Erditzea zail batean aurrean emakumeari laguntzea du xede.
 - “Muu Puklip nigana etorri da, eta nire *nigapurbalele* (biziaren arima) gorde nahi du betiko” dio kantan.
 - Uste baita, erditze zaila denean, gaixorik dagoela
 - MITOA (abestiak erreferentzia egiten diona)
 - Muu (alua) fetoaren formakuntzaren potentzia arduraduna, birsorketarako funtsezkoa. Muuren jauregia (umetokia)
 - Muu-k bere eginbeharrak gaintu eta amaren arimaz (purba) jabetu.
 - Kantua, beraz, purba galduaren bilaketan datza, ez Muu-ren aurkakoa, bere gehiegikerien kontra baizik.
 - Beraz, emakumearen barnean indar barnean indar ezberdinen arteko gatazka bat legoke (indar hauek organo bakoitzaren baitan dauden espirituak lirateke) eta abestiaren bidez borroka hau konpontzea lortuko litzateke.
 - Esana, errepikatu egiten dute. Emaginak, erdituko duen emakumeak...
 - AHOZKO TRADIZIOAK garrantzia handia duelarik, = errepikatzeak indar handia du.
 - Honekin lotu liteke, abesti honen egitura ere, izan ere, oso modu metaforiko eta zehatzean egindakoa da eta errepikapen ugari erabiltzen dira ahozko komunikazioan ohikoa den bezala.
 - Horrez gain, Nuchuak (egurrezko eskulturak) erabiltzen ditu Shamanak.
 - Aluaren paretik pasatzen ditu bidea argitzeko... munstro eta animalien aurka borrokatu.
 - Eta bueltatzea irudikatu... emakumaren dilatazioa sinbolizatuz.
 - Ze adierazten da... BORROKA
 - Errealitate arruntetik mitora
 - Paralelismoa fisiologikoki irudikatu...
 - Unibertso fisikotik unibertso fisiologikora
 - Kanpoko mundutik gorputz barrura
 - *Muu eta bere alaba muuganak vs. Shamara nuchuak...*
 - Kantua haurra jaiotzean amaitzen da, emakumearen gorputza bere egoerara bueltatzean... HAU GERTATU BEHAR DA

- Eraginkortasun sinbolikoa izan dezan.

ONDORIOAK

- Zaila iruditzen zaigu honelako terapiak sinesgarri izatea
 - Mendebaldeko kulturaren oinarriak BIOMEDIKUNTZAN jarriak daudelako.
- Finean...
 - Onartu mina badagoela
 - Sinesmen partekatua
 - Sinestea sendatu daitekeela
- Kontaketaren helburua
 - Esperientzia erreal bat bueltatu inkontzientetik kontzientera
 - Sinesmen sistema koherente batez baliatuz
- Gaixoa ULERTZEAN sendatzen da
 - Shamanak ahozko hizkuntzaz hornitzen du prozesua
 - Sinboloak + sinbolizatzen duenak (adierazleak + adieraziak)
- Eraginkortasun sinbolikoaren ideia (adibidez) adierazi
 - Levi Straussen arabera, Kunako herritarrentzat Shamanaren erditze abestia erditze prozesuan lagungarria den bezala
 - Frantziako biztanleen kasuan, psikoanalisiak betetzen du leku hori.
 - Zertan?
 - Ideien eta organoen manipulazioa
 - Mito eta operazio paralelismoa
 - Mediku eta gaixo dikotomia
- UNIBERTSALTASUNA: Hortaz, eraginkortasun sinbolikoaren garrantzia bi kultura erabat desberdinetan ematen dela ondoriozta daiteke.
- ERAGINKORTASUN SINBOLIKOA
 - Testuinguru psikologiko, historiko eta sozial jakin batean sortutako zenbait gertakarik aurrez existitzen den egitura baten moldearen barruan egiten den kristalizazio afektibo bat dela dio autoreak, indultzeko daukan gaitasunaren ondorio baita hau.
 - GAITASUN / AHALMEN INDUKTIBOAN / ERAGILEAN datza, zenbait estruktura formalki homologoak edukiko luketenak, estrukturok materia ezberdin eta izakiaren maila ezberdinez osagarriak direlarik: prozesu organikoak, psikismo inkontzientez, pentsamendu erreflexiboz.
- Eraginkortasun sinbolikoa baldin badago...
 - Minaren lasaitzea eman daiteke
 - Gure gorputza kontrolatzen dugu eta alde psikologikoak eragina
 - Sinesmen partekatuak daudelako.
 - Ondorioz, operatiboak dira (funtzionatzen du)
- Testuan azpimarragarria
 - **Interbentzio zuzenik gabeko sendabidearen ideia da.**
 - Gaixotasuna ulertzeko kausa-efektuaren ideia kulturalki errepikakorra litzateke (oin hutsik ibiliz gero ⇐ gaixotu, jainkoak froga bat ezarri nahi duelako ⇐ gaixotu)

- Askotan sendatu ahal izateko zuzeneko interbentzioa erabili ohi bada ere, hau ez da unibertsala. Ideia hau, testuan aipatzen dituen Shamanismoaren inguruko adibide ezberdinekin janzten du Levi-Straussek.
- Hala, **interbentzio mota ezberdinak** daudela esatera iritsiko da: interbentzio zuzena, borroka interbentzioa eta hitzezko interbentzioa.
- **Sistema sinbolikoaren indarra**
 - Eraginkortasun sinbolikoa **unibertsala** da.
 - Autore honen arabera, arlo sinbolikoak edonon izango du eragina sinesmen partekatua duen jendearen artean.
- **Psikoanalisiari buruzko hausnarketa (Kuna eta frantzia)**
 - Hala, bataren eta bestearen pentsaera moldeak maila berekoak direla defendatzen du.
 - Askotan hala uste ez bada ere, arrazionaltasuna mendebaldean soilik agertzen ez den elementua denaren ideia jaso daiteke testuan.

EKARPENAK

- Unibertsaltasunaren ideiak...hainbat helburu
 - Frantziar herritarrak eta Kunako biztanleak maila berean jartzea.
 - Behar psiko- fisiko baten aurrean kultura bakoitzean dauden sinboloen eraginkortasuna frogatzea
 - Kultura bakoitzak modu desberdin batera bilatzen baitio irtenbidea behar psiko-fisiko horri.
- Mendebaldean etnozentrismoa...
 - Biomedikuntzari zilegitasuna eta gainontzekoa sinismen/kontu psikologiko huts (eta balio gutxiagoko zerbait) gisa ikusi.
 - Hemen ere badaude “placeboak”
- Sendabide ezberdinetan arlo sinbolikoak duen presentzia
 - Erabat arrazionaltzat dugun medikuntza ere sinbologiaz beteta dago.
- Kulturaren eragina
 - Gaixotasuna zein kutsatua ez dira berdinak kultura guztietan, eta ondorioz, ezta hau sendatzeko bidea ere.
- Bi ideia hauek elkarlotuta
 - Kultura arlo sinbolikoagatik baldintzatuta (edota alderantziz) baitago.

MAGIA Y MILAGRO
-Mary Douglas-
“Un análisis de los conceptos de contaminación y tabu” 1991 (1973)

MARY DOUGLAS (1921-2007)

- Antropologo britaniarra
 - Filosofia, ekonomia... ere aritua.
- Oxforden ikasia
- Kutsu estrukturalista, baina sinboloen analisisan zentratua
- “Pureza y peligro” zikina eta garbia → gizarte klasifikazioa/antolamendua.
 - Hemengo 4.kapitulua (Magia y milagro)

Magia y milagro

- Autore pila bat ikertu zituen
- Erljio kristauaren eta herri primitiboen arteko antzekotasuna ikertu
 - Erritoak eta magia
- Errituak
 - Hauen bidez erlijio ideiak transmititu
 - Une batean egin, beste barik...
- Magia
 - Guk ulertzeko zailtasunak/mugak
 - Gizarte primitiboek errituen bidez giza funtzionamendua ulertu (ez dira une huts bateko kontua)

Magia primitiboa, miraria eta fedea

- Magiaren oinarria = errituaren oinarria → FEDEA (Smith)
 - Erromatar kristau katolikoak mirarian sinetsi (paralelismoa magiarekin)
 - Gizarte primitiboek magian
 - Izan ere...
 - Gizakia, animalia soziala eta errituala baita.
- Gizarte modergoan eta primitiboan...
 - Edozein unetan gerta daiteke, ez du kausa-ondorioa jarraitzen
 - Hau da ez da erritua eman eta bat-batean aldaketa gertatzen
- Erljio baten biziraupena betetzeko
 - Barne ahalmena eta kanpo irudia → etengabeko hartu emanean
 - Erljioa iraultzaren bidez egokitzen
 - Bertan... ERRITUEN ERAGINKORTASUNA bilatu
- Errituak
 - Gorputza eta garunaren oreka bilatu
 - Sentimenduak kontrolatu
 - Iragana eta oraina lotu
 - Gizarte rol 1 egokitu jarduteko.
- Errituak → TABUAK ezarri
 - Debekuak ezarri, une berean, arauak ezartzen.

Izaera soziala

- Errituen eraginkortasuna
 - Izaera soziala sortzea (talde bateko partaide izatea ahalbidetu), eta horretarako...
 - Testuinguru zehatz bat
 - Fede konpartitua
 - Barneko egoeran kanpo irudia sortu.
- Hau azaltzeko
 - *Txanponaren adibidea (Mauss)*
 - Txanponak ez du baliorik, baina gizarteak balioa eman.
 - Sozialki partekatua den balioa eta konfidantza daukana.
- Kontuan izatekoa...
 - Ezinezkoa da harreman sozialak izatea, ekintza sinboliko gabeak.
- Magiaren eraginkortasuna ere =
 - Fedea behar da!

Zientzia vs. sinboloak

- Gizarte primitiboak eta modernoak_ oinarrian SINBOLOAK
 - Uste okerra
 - Giz. Modernoak → zientzia
 - Giz. Primitiboak → sinboloak
- Baina... ezberdintasuna
 - Giz. Primitiboan_ ELKARTASUN SOZIALA
 - Shamanen kantua (Levi Strauss) → psikologia
 - Egungo terapeuta gisa, aspektu psikosomatikoa, psikologikoa eta soziologikoa taldena landu.
 - Erditze zaila arintzeko kantua
 - Gorputzak onartzen ez duen MINA adimenak onartu eta erlaxazioa + kontzentrazioa lortu.
 - Sendabide shamanikoa (Turner) → Talde lana
 - Giz./Kultura modernoetan_ZATIKATUA
 - Errituak lotura barik, arlo ezberdinetan
 - Giz. Primi → denak lotura

LIBURUAREN EKARPENAK

- Eragin handia antropologian
 - Zatikatzeko/sailkatzeko sistema
- Herri primitiboen antolaketa eta funtzionamendua erakutsi
- Errituen garrantzia adierazi...
 - Errituek aditzera eman...
 - Hitzak jartzen ditugunean esanahia mugatzen dugu.
 - Gauza batzuk bakarrik ulertzen baitira egiten diren ekintzak ikusten.
 - Errituak eremua zabaldu...
- Bizitza soziala/gizarte bizitzaren arazoak aztertzeko...
 - marko berri bat eman.

ONDORIOAK

- Parez pare daukaguna...
 - Sinesmen sistema bat da (EKARPEN NAGUSIA)
- Errituen izaera soziala
 - Ezin da GIZARTEA ulertu ERRITUALIK gabe
 - Ezin da GIZAKIA ulertu SINBOLORIK gabe
 - Errituak → errealitate sozial bat sortu
 - Pentsamendua sortu eta adierazi
 - Gizartearentzako errituak sortu
 - Beharrezkoa gizarte harremanak, sortu, mantendu eta iraunarazteko.
 - Adib:
 - Adiskidetasunak
 - Mezuak, zorionetan gogoratzea, kedadak...
 - Beharrezkoa adierazpen hau dena (errituak finean), adiskidetasuna mantentzeko, elikatzeko...
- Ekintza sinbolikoek errealitatea eraiki
 - Ondoren erritu hauek → errealitatearen eragile/menpeko
- Interpretazioa
 - Giz. Primitiboak + modernoak
 - Bietan daude erritualak...
 - Baina...
 - Giz. primitiboetan
 - Dena antolatzen duena → MAGIA
 - osotasuna + guztiaren azalpena
 - Giz. Modernoetan
 - logika zatikatua
 - Gauza bakoitzarentzat azalpen bat
 - eguraldia
 - gaixotasuna
 - ...

LA LÓGICA DEL SACRIFICIO
-Edmond Leach-
“Cultura y comunicación. La lógica de la conexión de los símbolos” 1989

EDMOND LEACH (1910-1989)

- Britaniarra
- Matematika eta medikuntza ikasia
- Tobagon, 1. kontaktua antropologiarekin
- Irak-eko KURDOAK aztertu zituen
 - 1939 Birmanian lan (BGM hasi)
- Ondoren Londresera, gizarte antropologiako irakasle (Cambridge)

Leach kokatuz

- Ikerketa gehientsuenak zentratu
 - Antropologia polikoan
 - Errituak + mitoak
 - Estrukturalismoan
 - Sinboloen teorian
- Zaila kokatzeko
 - Estrukturalismoa edo funtzionalismoa (bietan ekarpenak)
- Lévi Straussen estrukturalismoa → antrop. Britaniarrean txertatu


Testuaren nondik norakoak

- Sakrifizioaren gai zentrala
 - Heriotzaren metaforan datza.
- Nola lotu animalien sakrifizioa Jainko eta gizakien arteko komunikazioarekin edota gizakien status sozialaren aldaketarekin?
- Testua 2 alde ezberdinetan banatzen da
 - Alde teorikoa
 - Teoria horren aplikazioa kasu zehatz bati (Aaron apaiz nagusia kontsakrazioari)

Sakrifizioaren logika (alde teoria)


- 2 eredu desberdin proposatzen ditu erritual erlijiosoak esperientzia fisikoaren eta irudimen metafisikoaren munduen arteko harremana adierazteko balio duen esplikatzeke :
 - **1.eredua: Espazio metafisikoa**
 - Mundu hau / Beste mundua = mundu honen inbertsioa
 - Hilkorrak, zahartzen, boteregabekoak, denbora normala/ jaingoak,ahalguztidunak,denbora anormala.
 - Boterea “beste munduan” dago.
 - Ospakizun erlijiosoaren helburua - \square Zubia
 - Autoreak animalien sakrifizioen bitartez, jainko eta gizakiaren arteko komunikazioa azaltzen saiatzen da. Hau da, sakrifizioaren bidez, zubi bat eraikitzen dela azaltzen du.

- “Mundu hau” (fededunen elkartzeko lekua)/ “Zonalde liminala” (bitarteko eremua)/ “Beste mundua” (leku santua)
- Pertsona metafisikoak: gizakiak - □ Jainkoak
- Ekintza erritualen egileak: “apaizak” xamanak”



○ **2.eredua: Denbora metafisikoa**

- Denbora normala / Anormala
 - Ekintza erritualaren helburua, denbora normaletik (ekintzaren hasieran), denbora anormalerako jauzia da. Ordea, ekintza amaieran alderantziz. Ez du forma erlijiosurik eduki behar.



- 2 ereduak erabili ANIMALIEN SAKRAFIZIOAREN LOGIKA azaltzeko, uztargarriak
 - Sakrifikatutako animalia
 - Jainkoari eskaintza egiten dion gizakiarekin identifikatzen da.
 - Jainkoarekiko ELKARREKIKOTASUNA lortu nahi da.
 - Pertsona purifikatu
 - Status berri bat lortu
 - **Sakrifizioa**= Jainkoei egindako oparia eta elkarrekikotasun printzipioa da.
 - 1.eredua: eskaintzaren arimaren bidea - gizakiaren arimaren bidea
 - Sakrifizioan garrantzia: eskaintza baten sinboloa, elkarrekikotasun harreman

- baten adierazpena.
- Sakrifizioaren objektua, emailearen metonimia =zubia.
- 2 eredua: banantzea
 - Heriotza baten ostean gorputza bitan banatzen da:
 - Hildako gorpua (kutsatua dagoena)
 - Arima (beste mundura zuzenean igaroko dena, purifikatua).
 - Errituan beraz, bi aldeak banatzen dira.
 - Gorpua purifikatzera pasa daiteke, edo alde batera utzi.
 - Metafora hil eta berpiztean datza, sakrifizioak ondorengo fase baterako uzten du.
 - Bi denbora antzematen dira.

Deskribapen etnografikoa (alde praktikoa)_Aaron-en sakrifizioa

- Aaron apaiz nagusiaren kontsakrazioa (erlijio judutarra): Sakrifizio erritoen txosten zehatza.
 - **SAKRIFIZIOA**: igarotze-erritua + purifikatze erritua
 - Aaron sazerdote bihurtzeko eta purifikatzeko bere bi seme imperfektuak sakrifikatu beharra, horrela agindu baitio Jainkoak Moisesi.
 - Beste bi seme perfektuekin ordezkatuak izango dira.
- **Sakrifizioen antolaketa zehatza**
 - Espazio banaketaren garrantzia
 - Leku santua, beste mundua balitz bezala → altarea
 - Normalean ikonorenbat dauka (Apaiza-jainkoa)
 - Fededunak, mundu honetan elkarteko lekua → eliza osoa
 - Gune sakratutik gertu, baina era berean banatuta.
 - Bitarteko eremua, zona liminala → altarea-baranda
 - Erritualen mamia gertatzen den gunea (apaiza)
 - Erritualen egitura Levitikon (apaiz izateko arauak) agertzen da
 - Holokaustoa
 - 3 mota daude, ezberdinak dira kostu ekonomikoaren arabera.
 - Biktimaren odola altarean botatzen da.
 - Gorpua bitan banatzen da; ofrenda/hondakina.
 - Ofrenda erre egiten da eta hondakina garbitu eta erre.
 - Eskaintza odolgabea: janaria
 - Apaizari oparia. Animalia ez da akatzen, aitzitik, era berezi batean prestatzen da oparitzeko.
 - Apaizak parte sinbolikoa altarean erre eta bestea jan behar ditu.
 - Sakrifizio baketsua: biktima = emailea
 - Animalia akatu egiten da eta apaizari gantza eta odola oparitzen zaizkio.
 - Animalia akatu aurretik, buruan ikutu (harremana sortu); animalia izango baita bere ordezkoa.
 - Pekatuengatiko sakrifizioa: hondakina erreta.
 - Holokaustooaren antzeko, ostera, hondakina ez da altarean erretzen oso

kutsagarria delako. Kanpoko gunean erre.

- KOPLA-BURUKOA (askoren gaizkiak ordaindu)
 - Akerrak **zozketatu** (Jainkoaren eskuhartze)-- **erritual berezia**:
 - Magiazko aztikeriaz bidez, bertan bildutakoek pekatuak akerrari pasatzen zaizkio.
 - Akerra **basamortura** eraman , **bizirik** utzita.

Kontuan izan beharrekoak

- Aaron- ---- banantzea - ---purutasun --- kanpamentuan
- Akerra ----banantzea----- ezpurutasun ---basamortuan (“sakratua”)
- Erritualaren osagaiek, ez dute, isolaturik, esanahirik; beste osagaiekin alderatuta eta lotuta bihurtzen dira esanguratsu.

ONDORIOAK

- Erritualak
 - Mundu profanotik sakraturako saltoa egin
 - *Sakrifizioa: komunikazio modu bat da (mundu batetik besterakoa)
 - Jainkoarekin harremanetan jartzeko modua
- Erritualean parte hartu
 - Apaizak + animaliak
- Edonork ezin du animalia sakrifikatu

GIZAKIA --- apaiza + animaliak ----JAINKOA

- Gizakia eta animalia sakrifikatzeko → ukitu
- Sakrifizioaren HELBURUA
 - Gizaki horren egoera hobetu eta santutasunera gerturatzea
 - bizirik dauden artean status sozialaren aldaketarako mekanismoa
- Espazioaren banaketak
 - Gizartearen balioak + mundu ikuskera adierazi

ROBERT HERTZ (1881-1915)

- Soziologo frantsesa (lehenbizi filosofia ikasia)
- 1915ean 1.mundu gerran hil zen
- Erljioen soziologia landu zuen batipat
 - Durkheim eta Mauss-ekin lanean aritu zen.
- Baina...
 - Levi Strauss eta Evans-Pritcharden lanetan eragin zuen.
- Testu honetan...
 - Gizarte guztietan nabaria den eskuineko eskuaren nagusitasunaren zergatia azaldu nahi du.

Asimetria organikoa

- Orokorrean eskuineko eskuaren nagusitasuna BIOLOGIAREKIN lotu izanda.
 - Lege naturala (asimetria organikoa):
 - Garuneko ezkerreko hemisferioa eskuinekoa baino askoz garatuago dagoela, eta ezkerreko horrek eragiten dituela eskuinaldeko giharrek.
- BAINA... hori horrela da edo erabilerak eragiten du=
 - KANPOKO INFLUENTZIAK hori horrela izan dadin eragin...
 - Hau da...
 - Biologikoki eskuin eskua gailentzea gizarteak indartzen du, praktika eta balore batzuen bidez.
 - Gainera...
 - Gizakiarekin antzekotasun handiena duten animaliek bi aldean erabilera berdina dute.
- Hertz-ek
 - Zalantzak: eskuinaren eskuaren nagusitasuna organikoa izatean...
 - Baina.. nola azaldu joera organikoa eta kanpoko eragina bat ez etortzea?
 - Adibidez, ezkertiak eskuineko eskua erabiltzera behartuta egoten dira eta, hala ere, ezkerria erabiltzeko joera mantentzen dute.
 - Dena dela...
 - Honek ez du eskuinaren erabateko gailentasuna argitzen. Ezta zergatik eskuinaren erabilera bakarrik indartzen den ere, bien gaitasuna garatu beharrean.

Erljio polaritatea

- Orokorrean, gizartearen gorputzaren eskuin aldea gailentzearen abiapuntua POLARITATE ERLIJISIOA litzateke.
 - Eskubiaren derrigortasuna
 - Ezkerreraren debekua
- Eta hemen zer gertatzen da?
 - Primitiboen mundu espiritualean SAKRATUA vs. PROFANOAK agindu
 - Sakratua: boterea duena + arautua
 - Bizitza sortu eta mantentzen duten botereak, osasuna, gailentasun soziala, ausardia, purua...
 - Profanoa: kontrakoa, ez-purua

- Oprimizailea, auskorra, mingarria...
- Nahastu ezinak/banatuta
- Polaritate hau eremu erlijioso-espirtualetik → eremu sozialera
 - Dualismoak markatzen du primitiboen antolakuntza soziala (arlotan guztietan)
 - Adib. Ugari
 - Zerua vs. lurra, eguna vs. gaua...
 - Gizonezkoa (sokratua, bizitza) eta emakumezkoa (profanoa, heriotza)
 - Bi sexuen arteko bereizketa
 - Sexuaren araberrako lan banaketa
- Eta beraz...
 - Gizakiaren gorputzak ezin du dena arautzen duen polaritate-lege horretatik kanpo gelditu.
 - Gizakia KREZIOAREN MUINA izanda, derrigorrean gertatu beharrekoa.

Eskubiaren eta ezkeraren ezaugarriak

- Karaktere jakin batzuk ezarri zaizkie.
- Hizkuntza
 - Ezkerra: profanoa eta ezpurua, ahulezia, maltzurkeria, gaizkilearena.
 - Ezk. hanka:gaixotasuna, zorte txarra... (Polinesiar ere)
 - Eskubia: botere sakratua, legezkoa, ongilea, eta ongizatearen iturriaren ideia...
 - Hizkuntza indoeuroparrek
 - eskubia adierazteko_hitz bakarra (hedatua + iraunkorra)
 - ezkerra adierazteko_hitz ugari (ez-zabalduak + iraunkortasun txikia)
 - Ezinikusia eta ezinegona sortzen dituelako (Millet)
- Jainkoen irudikapena
 - Esaterako: **Maori**-entzat, eskuina alde sakratua da, botere onak eta sortzaileen kokalekua; ezkerra, aldiz, alde profanoa da, dohainik gabekoa, botere ilun eta susmagarrien lekua.
 - Eskuina, bizitzaren aldea da (indarrarena) eta ezkerra, heriotzarena (ahuleziarena). Ametsetan dardara sentitu bada, izpiritua da; eskuinean agertzen bada zorientasuna eta bizitza izango du, ezkerretatik agertuta, zoritxarra eta heriotza.
- Arra eta emea
 - Eskuina arrarekin eta ezkerra emearekin lotzen dira. Eva, Adanen ezker aldeko saihets batetik sortu zuela Jainkoak dio Bibliak.

Bi eskuen funtzioak

- Kontuan izan behar da...
 - Kulturak, gizakia energia sakratuekin komunikatzea duela xede.
 - Harreman horren bidez jainkoen mesedeak eskuratzea nahi baldin bada, eskuin aldea bakarrik da baliagarria. Baina xedeak jainkoak baretu edo indar maltzurak ezereztatzea bada, orduan, ezkerra erabili behar da.
- Beraz... esku bakoitzari egozten zaizkion ezaugarriak medio...
 - Funtzio sozial bat egozten zaio.
 - Eta honako status soziala dakar...
 - Ezker eskua oso trebatua izatea deabruzko izaeraren adierazle izan ohi da. Ezkerti izateak azti edo sorgin izatearekin lotzen da.
 - Eskuinaren gailentasuna arima onaren isla da.
 - Horregatik...
 - Eskubiko eskuaz: bedeinkazioak, agurrak, ehiza...

- Ezkerrokoarekin: gauza profanoak, ezkutukoak...
- Eskuin eta ezker eskuen erabilpena oso ezberdina da , araututa dago eta eskuinaren lehentasuna hobesten da.

ONDORIOAK

- Eskuin eta ezker aldean arteko derrigorrezko bereizketa pentsamendu primitiboaren DUALISMOAREN ondorioa da.
- Eskuineko eskuak duen abantaila fisiologiko txikiak KONTZIENTZIA KOLEKTIBOAK eragindako bereizte kualitatiboak dira.
 - Gerora, asimetria horretatik abiatuta, gizakiak (behartze soziala) alde bakoitzari guztiz kontrakoak diren ezaugarriak, ezarri dizkio.
- Dikotomia hau (profanoa vs sakratua)
 - Unibertsala
 - Munduaren antolaketa baldintzatu (baita gizakiaren gorputzean ere)
- Polaritate erlijiosoan ere UNIBERTSALA
 - Ezkerra baldintzatu, honek eragina garapenean.
- Irudikapenetan oso garbi ikusi
 - Judas (jesukristoren ezkerrean)_ antolaketa espazialak info +++.
 - Mundua eskubiarekin bedetatu.
- ZERGATIA/JATORRIA
 - Azalpen garbirik ez...
 - Egile batzuk bereizketa hau joera erlijioso eta EGUZKIAREN GURTZA legeekin lotzen dute. (Erligio ezberdinetan eraiki sakratu gehienak ekialdera begira egoten dira).
- Baina GARRANTZIA handia
 - Maila sinbolikoak izugarritzakoa, bizitzako alderdi xehena ere antolatu (jan, garbitu..) Bizirauteko funtsezkoena ere!

INFO GEHIGARRIA: "Gataka" filma

- *Idea nagusia: genetikoki baldintzatuak gaude*
- *Zerikusia: Jainkoak kontrolatzen du gure bizitza eta guk ez dugu gure buruaren kontrolik...*

LAS ABOMINACIONES DEL LEVÍTICO. 1991 (1996)
-Mary Douglas-
(Pureza y peligro. Un análisis de los conceptos de contaminación y tabú)

MARY DOUGLAS (1921-2007)

- Antropologo britaniarra
 - Filosofia, ekonomia... ere aritua.
- Oxforden ikasia
- Kutsu estrukturalista, baina sinboloen analisisan zentratua
- "Pureza y peligro" zikina eta garbia → gizarte klasifikazioa/antolamendua.
 - Hemengo 4.kapitulua (Magia y milagro)

Lege dietetikoak: deuteronomio + levitico

- Lebitikoa testamentu zaharreko zati bat da, Juduen ustez Moisesek idatzia.
 - Bertan, Israelgo herritarrek eta kleroak jarraitu beharreko arauak eskaintzen dira eta nagusiki lau gai lantzen dira
 - jainkoari eskaini beharreko opariak
 - Israelgo abadeen sagaratzea (consagración)
 - garbitasunezko arauak
 - santutasunerako legea.
- Elikagai abominablea = higuigarria baino gehiago, debekatua.
 - Beraz elikadura arauen inguruan hitz egiten du
 - Jan edo ukitu daitezkeen eta ezin daitezkeen animaliak.
 - Zer aztertu?
 - Purutasun vs. ez-purutasun bereizketaren logika.
- Honen arabera... JAN DEZAKEGUNA
 - Apatxak dituztenak
 - Hausnar (2 aldiz mastikatu) egiten dutenak
 - Hegal + ezkatadun arrainak
- EZ jan
 - Hegazti zehatzak (arranoa, belea...)
 - Janari higuigarriak
 - Intsektu hegodunak ez

Lege hauen OINARRIA/ZERGATIA

- Zein oinarri dute lege hauek?
 - Teoria batzuk (1)
 - Zentzurik gabeko legeak dira, arbitrarioak
 - Irrazionalak
 - Arrazoi anitzak
 - Nazka, beldurra...
 - Erlijioa
 - Adib: arabiar kulturaren, sugea deabruaren irudikapena da.
 - Hau diotenak
 - Arauak disziplinazkoak, ez doktrinalak
 - Maimonides: sinbolismorik gabekoak, fisiologian oinarritutako arauak (medikuntza oinarria)

- Filon: medikuntza
- Moises: gula sortzen duten haragiak ekidin, indigestioaren eragile direlako eta gaitzen jatorri.
- Epstein: helburua santitatea bilatzea eta israeldarrak bere buruaren kontrolaren jabe egitea bilatzen da.
- Aritu anglosaxoniarren (Nathaniel Micklem eta R.S. Driver) aburuz, arauak arbitrarioak dira irrazionalak direlako.
- Douglasek, araei zentzua kentzen dien momentutik, ez ditu aintzat hartzen interpretazio hauek eta jakintsuen zalantzak besterik ez direla dio.
- **Beste teoria batzuk (2)**
 - Bertute eta bizioen alegoriak
 - Lege dietetikoak jarraitzeak, pertsona erlijioso bihurtu (bide ona)
 - Bizioa ekidin
 - Lege etikoak (osasanari begira...)
 - Hatzaparra bita = Ongia vs. gaizkia banatuta, ekintza etikoak
 - Hausnar = pentsatzea, gogoeta
 - Hegal + ezkata = kontrola + norbere buruaren kontrola
 - Hauen artean...
 - Stein: lege bakoitzak arrazoi sakonak dituela bere baitan. Lege bakoitzaren atzean animalia bakoitzaren sinbolizazioa dago.
 - Douglas: interpretazio bezala porrot egiten duela uste du, ez duelako azalpen orokor bat ematen eta kontaezinak direlako interpretazioak.
- **Beste batzuk berriz (3)**
 - Kanpoko eraginetatik bereizteko sortuak
 - Ondoko erlijioetarik bereizteko nahia
 - Hau diotenak...
 - Badaude, baina tesi hau ezin da debeku guztietan aplikatu, ez baitago demostratuta.

Douglasen HAUSNARKETA

- Erantzuna: SANTUTASUNAREN ETA HIGUINGARRITASUNAREN kontraesanean
 - profanoa/sakratuaren artean
- Douglasek BEDEINKAZIOA aipatzen du, jatorri gisa.
 - Itun zaharrean; gauza on guztiak bedeinkatu eta jainkoaren obra bete (krezioa)
 - Bedeinkazioak
 - ORDENA ezarri
 - Hau ez jarraitzeak... antzutasuna, pestea, nahasmena bide okerra...
 - Hau, jainkoarekin PAKTUA + ZEREMONIAK + ARAUAK bete
 - Beraz...
 - Betetzea = oparotasuna
 - Ez betetzea = arriskua
- Legeak SANTUTASUNAREN IDEIA kokatu
 - Bereizketa (jainkoarekin parekatua)
 - Osotasuna
 - Inperfektua
 - Osotasunik gabe (fisikoki jarioak = besorik ez...) ezin jainkoarengana hurbildu
 - "Sed santos, porque yo soy santo"
 - Santutasunaren oinarrian (!!!)
 - Izaki bakoitzari egotzitako klasea onartzea.

Zer gertatzen da legeekin?

- **Driver:** Legeak ohituren oinarri
 - A posteriori sortu
- Kokatu dezakegu...
 - Gizarte nekazari eta abeltzainean
 - Txerria ez da errentagarria: narrurik ez, esnerik ez...
 - Beraz ekidin beharra (hausnar ez!)
 - Horrekin batera... gizarte abeltzainean
 - Piztiak debekatu; ehizara joan beharrak abeltzain txarra adierazi.

Itun zaharra = GENESIA

- Sailkapen hirukoitza
 - Lurra
 - Saltoka + oinez
 - Ura
 - Ezkatak + hegalak igeri egiteko
 - Airea
 - 2 hanka + hegoak
- Hau betetzen ez dutenak... inpuruak!
 - Zizarea, sugea...
- Legeen helburua (Moises)
 - Jainkoaren bidea jarraitzea (Jainkoa une oro presente izatea)
 - Santutasunari ekspresio fisikoa ematea
- Kontuan izan...
 - Tenpluetan ere eragina, ezingo delako edozein animalia sakrifikatu tenpluetan.

Liburuko EKARPENAK

- Liburuan ageri diren erlijioak
 - Judaismoa (arau zorrotzak)
 - Kristautasuna (debekuak bai, baina kultura bezala batipat)
 - Islama
- Txerraren ez-jakintasuna... (kristautasunean)
 - Kategorietan 1 egiten ez duen elementua
 - Beraz pentsarazten diguna
 - Ordenari buruzko informazioa ematen digu
 - Finean, gainontzeko kategoriak mantentzen ditu.
 - Gure gizartean, anbigua da (batzuetan ona, bestetan zikina)
- Ordenetik kanpo dauden izakiak, informazio ugari ematen digute garai bateko ohituren inguruan eta...
 - Finean, debekuek lehen zer nolako gizartea zegoen adierazten digute.

ONDORIOAK

- Mary Douglasek munduaren eskema bat planteatzen du puru/ezpuru dikotomia
- *Lege dietetikoak jaunaren batasuna, purutasuna eta perfekzioaren zeinu bezala azaltzen zaizkigu.*

S ARE GOOD TO THINK AND GOOD TO PROHIBIT. 1969
-Stanley Tambiah-
(Ethnology)

STANLEY TAMBIAH (1929)

- STANLEY JEYARAJA TAMBIAH
- Gizarte antropologoa
- 1929 Sri Lanakan jaioa
- Bere lana Thailandia eta Sri Lanakan asko zentratu, baita antropologia erlijioso zein politikoan.

Testuaren nondik norakoa

Gai honi buruzko hausnarketak egin dituzten hainbat autoreren teoriak abiapuntu gisa harturik (hala-nola Douglas, Leach, Radcliffe-Brown eta Strauss), Stanley Tambiah-ek idatziriko testu honek giza taldeen eta animalien arteko erlazioak aztertzen ditu, janariaren tabuak ardatz harturik.

- Bere teoriaren abiapuntua:
 - Douglas: ez zituen gizarte harremanak ondo aztertu (hutsunea).
 - Leach: sexu-harremanak, ezkontza, espazioaren banaketa eta animalien jangarritasuna ikertu zituen.
 - Radcliffe-Brown: utilitarismoan erori zen, animaliak jangarritasun-irizpidearen arabera baino ez zituen harremanak; irizpide gehiago daude.
 - Levi- Strauss: sexu- harremanak, ezkontza eta jatearen debekua metaforikoki lotuta, etikoki praktika bat dakarrena, kode bat. Utilitarismoan erori zen. Aurrekoak animaliekin nahastu zituen eta bereiztu egin nahi zituen. Txorien antolakuntza bera.
- Bere ikerketa Thaiandiako ipar-ekialdeko herrixka bat aztertuz burutzen du eta honako **bi puntu** nagusi jorratzen ditu
 - Sexu harremanak, etxeko kategoriak eta dietako arauak
 - Zein lotura dagoen animalia jangarrien arteko lege eta harreman sexualak eta ezkontzak zehazten dituzten legeen artea.
 - Animalien sailkapena, sailkapenetik kanpo dauden animaliak eta animalia anomaloak
 - Zein den animalien jangarrien inguruko debekuen eta animalia horien arteko sailkapenaren arteko lotura
- Tambiah-ren **ideia nagusia**:
 - Unibertso moral baten baitan dago kokatua dena. Atal guztiak ulertu behar dira gizartea ulertzeko. Koexistentzia, elkarbizitza.

Sexu harremanak, etxeko sailkapena eta dietako arauak

- Tambiah-k 3 Talde erlazionatu:
 - ezkontza eta sexu arteko arauak
 - etxeen atalen sailkapena
 - animaliak (etxekotuak zein basatiak)
- Kontuan izatekoa:
 - Ezkontza, zeremonia eta bankete bezala garrantzitsua.


- Gizakien sailkapena + sexu harremanak
 - 2 ardatz
 - Bertikala → Belaunaldi artekoa
 - Horizontala → sexu arteko harremana eta ezkontza
 - Odolezko anai-arrebak → sexua/ezkontza EZ
 - 1.mailako lehengusuak → sexua/ezkontza EZ
 - 2.mailako lehengusuak → sexua BAI/ezkontza EZ
 - Hau konpontzeko erritua, bikotea txakur gisa portatu, dortoka oskoletik jan (=bajina)...
 - 3.mailako lehengusuak → sexua/ezkontza BAI
 - 4.mailako ahaideak (herri = bizi ez direnak) → GOMENDAGARRIENA
 - Herriente arteko lotura dakarrelako
 - Atzerritarrak → deskonfiantza
- Etxeko atalen esanahi soziala
 - Herria → lursailetan banatua → etxe printzipal bat
 - Azpiko “pisua” hutsa
 - Bertan bizi → gurasoak + 1.alaba + alaba txikiena
 - Alaba zaharrenak (bikotearekin) → lursail = etxe berri bat.
 - Alaba txikiena (bikotearekin) → gurasoak zaintzen beti.
 - Logela (beti iparraldean, mendebaldeko aldea ezkerrean, iluna... garbitzeari lotua) 2tan banatua
 - Gurasoen aldea/ATEA/alaba txikia + bikotea (hau ezin da gurasoen aldera pasatu)
 - Gizonak (iparraldean beti)
 - Eta honen ezkerrean emaztea + alaba
- Animalien sailkapena etxekotuak + basatiak
 - Etxekotuak
 - Gizakiaren leku = bizi direnak
 - Txakurra → logelan ez
 - Katua → logelan ere bai bai
 - Logelaren azpian
 - Bufaloa
 - Logela nagusiaren azpian
 - Ez da jaten (etxekoa)
 - Txerria
 - Gonbidatuen logelaren azpian
 - Ez da jaten
 - Etxe inguruan
 - Ahateak/Oiloak
 - Basatiak
 - Bufaloa
 - Ere izan daiteke...
 - Elefantea → hinduismoari lotua, beraz ezin daiteke jan...

Ezkontza eta sexu harremanen arauak, dieta arauak, etxearen atalen sailkapena

3 atalen arteko erlazioa: ezkontza eta sexu harremanen arauak, dieta arauak, etxearen atalei dagokien sailkapena					
Gizakiak	Anaia-arrebak	Lehen lengusuak	2. Lehengusuak	Bestelakoak	kanpotarrak
Ezkontza eta sexu arauak	Inzestuaren tabua	Ezkontza tabua da, harreman sexualak ez	Egomendaturiko ezkontza (baita sexu harremanak)	Ezkontza eta harreman sexualak posible dira	Ezkontzarik ez
Etxeko atalak	Guraso zein alabaren logela zatiak	Logela	Gonbidatuen gela	Sarrerako plataforma	Lur esparru itxia
Atal bakoitzeko arauak	Lotarako arauak generazioaren arabera	Logelara sartzeko eskubide zein arauak	Logelara sartzeko tabua	Gonbidatuak sartzean oinak garbitu	Knpotarrak kanpo geratu
Animalia taldeak	Etxe barruan bizi diren a. etxekotuak	Etxepean bizi diren a. etxekotuak	Beste etxeetatik datozen a. etxekotuak	Basoko animaliak (etxekotuen parekoak ere)	Basoko a. boteretsuak eta tximuak
Jangarritasunaren inguruko arauak	Janezina eta tabua	Zeremonietan ezin dirajana	Zeremonietan jangarria	Jangarria	Janezina eta tabua

Animalien sailkapena

- Animalien sailkapena → izaki bizidunak
- 6 kategoria
 - Gizakia, intsektuak, txoriak, uretako animaliak, animalia etxekotuak eta basoko animaliak.



SAILKAPENETIK KANPOKO ANIMALIAK ETA ANOMALIAK

Musker erraldoia	Umeentzako janari sendagarria
Muskerra	Ez da jaten, baina jateko txiklegia delako, ez berekiko nazkagatik
Etxeko arratoia	Bakarrik ume txikiek jan, helduek jan dezakete baina ez dago onartua
Kameleoia	Sendagarria den janaria
Landako arratoia	Soilik umeek jan, helduek ere baina era pribatuan
Sugea	Jangaitza (higuina)
Apoa	Jangaitza (higuina)
Putrea	Jangaitza (higuina)
Belea	Jangaitza (higuina)

- 2 arazo nagusi agertzen dira arlo honetan:
- Herritarrek ez dituzte animalia hauek goi mailako talde horietan sartzen (sugea, putrea...). Beren jangarritasunean ere islatzen da arazo hau.
- Jangaitzak diren animaliak izanik, jangerriak diren animalien talde berean kokatzen direnak (hontza, urtxakur ...)
- Proposamena
 - Animalia bat ez badago kategoria nagusienetako batean sailkatua → JANARI ANBIGUOA da.
 - Nolabait dietaren mailaketan zein jarrera duen jakiteko, zein kategoriako

- o aurrekaria daukan jakin beharra, balioa emateko.
- o Talde handi baten pean ez dagoen animalia GAI da jatorrizko lekua utzi eta gizakiaren alboan 1.mailako posizioa hartzeko, orduan bilakatu:
 - Tabu gisa edo...
 - Gauza txarren iragarle
- o Kategoriatu batean kokaturiko animalia batek, DOMINAZIOA/INDAR ezaugarriak baditu...
 - Anbiguo bilakatu eta beraz... EZ JANGARRI
- o Kategoriatu batean kokaturiko animalia batek, beste kategoriatu batekoen EZAUGARRIAK ELKARBANATUZ GERO...
 - Jangarria izateaz gain, GOMENDAGARRIA.

ONDORIOAK

- Aztertutako herria EZ da TOTEMIKOA
- Levi Straussi KRITIKA
 - o Natura oinarri → kultura (gizartea)
 - Gizakiaren saltoa
 - o Animaliekiko debekua, gizakiak egiten duena naturatik datorrena ukatzeko.
 - o Honen aurrean Tambaiah-ek dioena... (IDEIA NAGUSIA)
 - Dena bateratuta dagoela, EXISTENTZIA BATERATUA
 - Herritarren animalien munduarekiko erlazioa
 - o Etxearen antolaketa, gizakia/animaliaren sailkapenak, ezkontza...
 - METONIMIA ETA METAFORA bidez animaliekiko dagoen erlazioa ulertu eta horiek, etxeko atalen sailkapenena eta sexu eta ezkontza arauetan nola eragin erakutsi nahi du.
 - o Adib:
 - Bufaloak
 - Erlazio metonimioa: Jan behar dena bizilagunarena, bestela norbere burua jatea bezalakoa litzateke.
 - o Zorte txarra ekarri...
 - Metafora: inestuaren tabua
 - Baina bufaloa izatea...
 - o Aberastasunaren irudikapen
 - o Jaterako orduan, besteena... baina ez hain urrunekoa...
 - = gertatzen da ezkontzarekin ere, "puntu" exogamikoa, baina neurrian.
 - Espazioaren antolaketa
 - konplexua → arauak + debekuak
 - Gurean ere...
 - o Egunko (zonalde publikoa) eta gaueko espazioen (zonalde pribatuagoa) banaketa dago
 - o Dena dela aipatzen da, pribatuaren araua lausotzen doala egun... INTERIORISMO BERRIA...
 - Eta erdi-aroko egoerara bueltatzen edo...
 - Zergatik?
 - Etxean sartzea delako eremu intimoan sartzea
 - Edo, gero eta jende gutxiago sartuko den etxeera.

VAN GENNEP (1873-1957)

- Folklorista eta etnografo frantsesa. (antropologo, etnologo... ere esaten badiote ere)
- Alemanian jaio zen, 1873an, baina gurasoak banadu ostean Frantziara joan zen bizitzera.
- Inongo instituzio akademikoan txertatu gabe, bere kabuz ibili zen.
- Bere lan ezagunena:
 - *Les rites de passage (Los ritos de paso)* 1909an idatzia. Ondoren Turnerrek honi jarraiki garatua bere lanean. Ostiralean ikusiko dugun bezela.
- Baina ez zen lan bakarra izan.
 - *Traité comparatif des nationalités* (1922)
 - Tratado de Versalles-en arira idatzia. Bertan nazionalitatearen ezaugarriak lantzen dira: zentzu historikoa, mozarroak, banderak, ohiturak... Baita fenomeno linguistikoak ere. Nazionalitateen arteko berdintasun eta ezberdintasunak azaleratu asmoz. Nazionalitateen fenomenoaren etnografia edo alderaketaren esertzia gordetzen du.
 - *Manuel de Folklore Français Contemporain* (Manuel de Folklore Francés Contemporáneo, 1937-1958)
 - *Folkloreari buruzko lan hau, lanik esanguratsuen eta anbizio gehien izan zuena kontsideratzen dute XX.mendeko Europako etnografian.*
- Hizkuntzetan abila.
- Itzulpengintzan eta Agrikulturako ministerioan funtzionario, lan akademikoekin nahastuz.
- Gerra mundialen eragina ere bizi izan zuen.

TESTUA ULERTUZ

Igarobide errituen eskema



- Egoera batetik bestera edo mundu batetik bestera igarotzeko errituak.
 - Fase ezberdintzat hartzen dira, non egoera batetik beste berri batera igarotzen den.
 - Edozein leku, egoera, maila sozial edo adin aldaketa gauzen duten erritoak dira.
- Igarobide errituen egiturak logika unibertsal bati erantzuten diote.
 - (eskema konkretu bat)
- Eskema hau da, 3 sekuentzian banatua (banaketa ez da hain argia)
 - Banaketa errituak (Funeralak...) -**Sekuentzia preliminarra**-
 - Jokaera sinbolikoa: Banaketa adierazten duena, talde batetik edo egituran zeukan leku batetik, ezaugarri kultural batzuetatik...
 - Muga errituak (ahurdunaldia, hasiera, adin aldaketa...) -**Sekuentzia liminarra**-
 - ataria, trantsizio etapa, frontera
 - Etapa honen ezaugarriak anbiguoak dira, ez dago ez hasierakoari lotua ezta datorrenari ere.
 - Agregazio errituak (ezkontza...) -**Sekuentzia posliminarra**-
 - Pasua ematen da
 - Egoera berri baten, baina egonkorra: eskubideak + eginbeharrak
- Eskema malgua da!
- Igarobide errituak, konbinatzen dira maiz: fekundazio errituak, defentsa errituak, ordenazio errituak...
- Purua-impurua... tarte horretan ere kokatzen da... eta hemendik SAKRATUAZ mintzo!

Sakratua

- Ekarpen handiena: ez dauka balio absoluturik, egoeraren arabera balorea dauka.
- Adibidea
 - Gizona (bere klanean) profanoa, atzerrira joatean bidaian.
 - Emakumea (haurdun) sakratu bilakatzen da.
- Zirkulu majikoen desplazamendua, jendartean orokorrean betetzen dugun lekuaren funtzioaren arabera.
- Profanotik-sakratura (alderantziz), igarobide errituen bitartez.

Igarobide materialen kasua (aztertzen du)

- Mugak
 - Egun: mapetan marraztuak baino ez daude
 - Lehen: formalitate batzuk bete behar (politiko, ekonomiko, juridikoak) mugak pasatzerakoan, baina baita *majiko(teknika)-erlijiosoak (teoria)* ere
 - Ulertzeko: debekuak kristau, musulman...-entzat, haien fedeari lotuta ez zegoen lekuan egotea.
- Igarobide tabuak (ez pasatzea)
 - Objektuak (mugarriak...)
 - Naturalak (arbola, haitza, erreka...)
 - **Bietan, espazioa/objektua konsagratua da eta sakratuaren balorea hartzen du.*
- Marka, margena
 - Egun, herri bat bestearekin ukitzen, LEHEN EZ.
 - Lehen, leku kristaua zati bat eta bestea urruti... tartean, “banda neutroa”, marka izeneko ataletan banatua. (markak atzeratzen, desagertu arte...)
 - Territorio batetik bestera igarotzea, leku neutrotik pasatuz: leku sakratuak.
 - Leku zibilizatueta (Grezia): merkatu guneak, gerrarako gune...
 - Leku semizibilizatueta: desertua, pantanoa, baso basatia (ehizatu-arrantza librea)
 - Gune horretan dagoena, bi munduren arteko egoera berezia (MARJENA)
 - Ideala edo materiala
 - Normalean zeremonia denetan ageri da.
 - Igarobide erritua eta beraz marjenaren “izatea”
 - Herrialde batetik bestera pasatzean, auzo batetik bestera, edo tenpuan, edo etxean.
 - Baina gune hori estua izaten da.
 - Atea/ataria
 - “Pasar el umbral”: atea, kanpo-barne munduaren muga, profano-sakratuaren muga...
 - Honako asko, purifikazio errituak, banaketa errituak... sartzen badira ere.
 - Baina atarian egiten direnak, MARJEN ERRITUAK dira.+
 - Hemendik sortu eskema!



Beraz, Hiru sekuentzietan banatzen dira:

- Banaketa errituak ► sekuentzia preliminarra.
- Muga errituak ► sekuentzia liminarra
- Agregazio errituak ► Sekuentzia postliminarra.

Fase hauetako bakoitzak bere azpi-errituak ditu.

- Hemen hitz egiten da: Arcos de triunfo romanos
 - El triunfador, etsaiaren mundutik banatu behar (errituak), arku azpitik (marjena) pasatu eta mundu erromatarrera agregatu (errituak).
- Ondoren ere azaltzen da, marjenari lotuta
 - TRANSPORTATUA izatearena: lurra ezin du ukitu subjektuak, altxatu beharra.
 - Bodetan, batailoetan...
 - Errelikiak ere alde batetik bestera eramatea...
 - Ez da ez sakratua-ez profanoa, bizitza-heriotzaren artean... dagoela adierazi nahia.
- Sakrifizioa, peregrinajea eta botoa
 - Sistemikoki jarraitzen dute eskema hau, batez ere sakrifizioak.
 - Peregrinazioak
 - Katolikoan: santifikazio arau batzuk abiatu aurretik, profanotik atera (tabuak, elementuak) sakratura sartzeko.
 - ...
 - Devotio (promesa de una persona hacia dios), sakrifizioarekin lotuta, kunplitu beharra esandakoa.
 - Voto de castidad...(pureza, actos sexuales)

Igarobide materialetik espiritualera

- Lehen gehiago zen atari azpitik pasatzea, edo zerbait pasatu beharra... egun zerbait espiritualagoa bilakatu da, esanahia mantenduta ere.

- Baina askotan materiala eta espiritualala lotuta ageri dira.

Igarobide erritoak (materialak)

- Sarbide erritoak:
 - Mendateak: materialak utzi, ofrendak...
 - Erreka pasatzea...
 - *Banatze errituak joatean eta agreaziokoak bueltatzean.
- Sorrera sakrifizioak
 - Igarobide errituak... izaten dira.
 - Etxe berria, tabu da eta errituekin noa bilakatu. (tabua kendu)
- Irteera errituak
 - Sarbide erritoen kontrako, antzera.
 - Adibide ugari
 - Mahomaren garaian, arabeak jainko domestikoaren eskua igurtzi...
 - ATE NAGUSIA: sarbide eta irteera errituen gune (mundu familiarra-kanpokoak)
 - Igarobide errituak bertan.

Beste igarobide erritu batzuk:

**GARRANTZITSUA: Erritu determinatu bakoitza, era ezberdin batera interpretatu daiteke, sistema oso bati edo erritu bakar bati lotuta baldin badago edo nola egiten direnaren arabera.*

ILEA

- Ilean sakrifikazioa (2 operazio ezberdin)
 - Moztea
 - Aurrekontu mundutik banatu
 - umarena (bizitzara saltoa), ezkontzerakoan emakumarena, adinez aldatu, alargunak...
 - AGUA pelikula *Chuyia, Se le afeitada la cabeza e ingresa en un ashram para viudas donde deberá pasar el resto de su vida, convertida en un altar viviente consagrado a la memoria del fallecido. (Deepa Mehta)*
 - Eskeinatzeta
 - Mundu sakratua binkulatzea
 - Ezkontzea: dibinitatea/deabrua
 - ZERGATIK ILEA
 - Banatze erritua, ezberdintze ezaugarri bat delako, elkarrengandik bereizten gaituena (indibiduala nahiz kolektiboa)
 - Adibidez: Rehamma-ko emakumeek bere bizitzan (Maroko)

ZAPIA (VELO)

- Mundu profanotik aldentzeko
- Batzuetan tenporala
 - adibidez ezkontzetan,
- Beste batzuetan definitiboak
 - Tunezeko emakume judioak/emakume musulmanak...
 - jendarte sexualaren parte direlako, jendarte familiar determinatu baten parte direlako, gainontzeko mundu guztiarengandik babestu beharra.
- Bestela
 - Alargun gelditzean, gizonaren alarguna, banatzean.
 - Sokratesek ere...
 - Biktimak, mundu honetatik aldentzeko eta konsagratu (beste mundu sakratura)

HIZKUNTZA BEREZIA

- Zeremonia askotan
- Batez ere, MARJEN uneetan.
- Hitz batzuen debekua edo hizkuntza guztiz berezia.
 - Sazerdoteena (liturgia)
- Nahiko gauza normala, ezberdinketa emateko.

ERRITO SEXUALAK

- *Garrantzitsua: koitua inpureza edo arrisku majiko-erlijiosoa ez daukan lekuetan, ez dago honen inguruko taburik!!!*
- Hainbat ezberdin
 - ABSTINENTZIA
 - Mundu sakratuan sartu nahi duenak eta behin sartutakoan, “pureza” mantendu beharra.
 - PROSTITUZIO KONSAGRATUA
 - Inpurua bada ere, boteretsua da koitua.
 - Dibinitatearekin konsagratua, dibinitatera ailegatzeko.
 - *Mylitta, *basado en el poder sagrado del extranjero*.
 - *Batzuetan beraz, koituari uko egiteak balio du eta beste batzutean talde batean onartu izateko koitua beharra.*
 - LIZENTZIA SEXUALA
 - Hasiera errituei lotuak, agregazioa lortu nahia.
 - Komunitate batzuen parte izateko pic-nic antzera, baina sexuarekin.
 - Denak denekin lotu, jendarte bat osatzen dutenen arteko lotura, sakona eta osoa.
 - Akelarrea?
 - Adierazi beharra...
 - Heterosexualitatean bezala, homosexualitatean ere.
 - Adibide gisa: Melanesian gizon zahar baten eta gazte baten arteko erritual bat azaltzen du. (pederastia, ez da ezer txarra)
 - Hainbat antzinako gizartetan homosexualitatea guztiz normala dela aipatzen du.
 - El rito de Cos
 - Hercules emakumez jantziz, sazerdoteak Herculesen “emakumeak” irudikatu, beraz ekintza homosexual bat...
 - Animaliekin
 - Agregazio erritua izan daiteke.
 - Madagaskarren esaterako
 - Bidaiatik datorren gizonak bere emaztearekin sexu harremanak izan aurretik, etxekotu gabeko behiarekin izan baino lehen, ondo zaindua-apaindua...
 - ...
 - MUTILAZIOAK (organo sexualetan)
 - Ablazioa, circuncisioa...
 - 3 faseak ematen dira.
 - Kulturalki elementu batzuen presentzia ageri da, errituak espezifikoak eta pertsona espezifikoak baita.
 - Infantziatik nerabegarora pasatzea irudikatzen du.

FLAGELAZIOAK (Kolpeak)

- Interpretazio anitzak

- Sadismoarekin ere lotua, sexualki jokatzen du.
- Orokorrean, inpurua dena aldentzeko...
 - Teoria ezberdinak
 - Reinach: deabruak aldentzeko
 - Frazer: purifikatzeko
 - Thomsen: gorputza indarrez betetzeko.
- Batzuetan agregazio bezala (komunioan), baina beste hainbat lekutan banaketa erritu gisa...

LEHENENGO ALDIA

- Esangura berezia
 - Hainbat erritutan ere, gainera askok lehenbiziko aldian baino ez dute esangura gordetzen.
- Igarobide errituen eskema, bete-betean.
 - Banaketa profanotik, betikotik... eta konsagrazioa.
- Haurdunaldia, erditzea...
- 1. haurra (mayorazgoa, batez ere lehenengo gizona)
- 1.koitoa (virjinitatea galtziak, batez ere emakumeengan)
- Menarkia
- 1.matrimonioa
- Poliginiotan ere, 1.emakumeak indar handiagoa.
- Garrantzitsua:
 - Hainbat lekutan, ezkontzaren erritua, 1go seme-alabaren jaiotzarekin amaitu.
 - Emakumeak, maila hartu, umea izatean (hau hemen ere igertzen da...)
- Behin dominio berri batean sartuta, gainontzekoa errepikapen hutsa da.

Urteko, urtarotako, hilabeteetako nahiz eguneroko zeremoniak

- Autore ezberdinak aipatzen ditu
 - Frazer esaterako.
- Urte amaierako eta hasierako errituak
 - Pekin
 - Urte zaharrarekin banaketa erritua
 - Barkamenaren erritua (sendia guztia batzen delarik)
 - Margen unea
 - Gau guztia edo gau zati bat, aldaketa unea.
 - Urte berria
 - Margen unea
 - Eguna, astea edo hilabetea
- Urtaro aldaketak
 - Bataren banatzea eta bestearen agregazioa.
 - Lotura ekonomiarekin eta nekazal, abeltzan munduekin.

NIRE EKARPENAK:

- **Van Gennep-ek:** antzinako Egiptoko erritu sistematizatuarekin paralelismoa
 - Igarobide errituekin
 - Sistema horus eta sistema osiris (tartean errituak)
- **NIRI:** Bat baino gehiago etorri zaizkit gogora:
 - Adibide batzuk: karrera amaierako graduazioa (pelikula yankietakoa), soltero despedidak, nobatadak, San Juan gaua...

- Sinbolikoki garrantzia handia, egundaino ailegatua.

Kintxuak (Aretxabaleta)

- *Ohitura den moduan, urte horretan 19 urte beteko dituzten neska eta mutil aretxabaletarrak kantuan irteten dira Santa Ageda bezperan eta egunean bertan.*
- *Santa Ageda bezperan:*
 - *Baserritar jantzita, baserriz baserri kantatzen.*
 - *Diru eta jan eskean.*
- *Santa Ageda egunean berriz, kalean etxez etxe.*
 - *Errapa zuriarekin, gerriko eta txapel gorriaz.*
 - *Arratsaldean plazan DANTZA*
 - *2 kintoren arteko desafio dantza egiten da.*
 - *2 hauek beste 2 pertsona ateratzen dituzte plazara eta hauei aureskua dantzatzen diete.*
 - *Denek banakua dantza egiten dute.*
 - *Azkenik, fandangoa eta arin-arina.*
- *Santa Ageda egunetatik haruntzago...*
 - *Bezperatik inauterietako astebururaino domekero dantza egiten dute plazan.*
- *Horrez gain, kintxuak izan aurretiko urtean (18 urte betetzen dituzten urtean) San Juan bezperan txopua moztu eta san juan gabaz plazaren erdian altxatzen dute.*
- *Lehen mutilak bakarrik, soldaduzkara joan aurretik, baina duela 5-6 urtetatik hona neska eta mutilek.*
- **ZER ADIERAZI?**
 - *Oier Araolaza (antropologo eta dantzariak) hitzetan, aroetako erritu gisa. Adin aldaketa sinbolizatzen duen erritua, ume izateari laga eta helduen gizartean sartzea adierazten du.*

ONDORIOAK

- Igarobide errituen egiturak logika unibertsal bati erantzuten diote.
- Gizarte batean sakratutasuna ez da absolutua eta finkoa; unean uneko beharren arabera aldakorra da. Malgua da; hau da, sakratutasun kontzeptua bera unibertsala izan arren, berau materializatzeko modua ez da unibertsala. Sakratu hitza erabiltzen duenean, mundu izpiritualari lotzen dio eta ez beti debekuari. Ez da termino erlijioso soilik.
- Igarobide errituak izan daitezke: sarbide errituak, irteera errituak, sorrera sakrifizioak, urteko ospakizunak ... Honako elementuak ageri ohi dira halakoetan: ilea, zapia, hizkuntza berezien erabilerak, erritu sexualak, kolpeak, lehenengo aldia, urte/urtaro/hilabete/egunero-ko ospakizunak ...
- Kotsagrazioa
- Magia = erlijioaren teknika da: “magiko-erlijioso” terminoa erabiltzen du.
- Margena edo muga: bi munduen arteko egoera berezia da.
- Bizitzan zehar, hainbat fase bata bestearekiko exkluianteak dira; banaketa markatzen dute; estatus ezberdinak.
